

## **Gabiriako udalerriko esparruan eukaliptoak landatzea debekatzeko mozioa**

EHU eta Aranzadi zientzia-elkartearen arteko elkarlanean eukalipto-landaketak Euskadin eta Iberiar Penintsulan eragiten dituzten ingurumen-kalteei buruzko txostena, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzaren agindura egindakoa, Munibe aldizkari zientifikoan argitaratuta dago (Efectos ambientales de las plantaciones de eucaliptos en Euskadi y la península ibérica. Munibe Cienc. Nat. 68, 2020).

Txostenaren emaitzek ez dute zalantzarik uzten: eukaliptoen eragina kaltegarria da ingurumenerako, eukalipto-landaketen hedatzea kaltegarria litzateke lurzoru eta hidrologiarentzat nola biodibertsitatearentzat. Eta eukaliptoen hedapenak Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan diren espezieak are gehiago mehatxatu ditzake.

Era berean, 630/2013 Errege dekretuak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako katalogoa antolatzen du, non zerrendatzen diren bertako ekosistema, habitat eta espezieentzat arriskutsuak diren espezie arrotzak. Dekretu horrek gainera katalogoaren Batzorde Zientifikoa arautzen du.

2017an Batzorde Zientifiko horren CC 30/2017 ebazpenak honokoa zioen:

“Constatado con los datos científicos disponibles el carácter invasor de las especies de *Eucalyptus* naturalizadas en nuestro país, se concluye que se debería incluir en el Catálogo Español de Especies Exóticas Invasoras regulado por el R.D. 630/2013, de 2 de agosto, bajo el criterio de la IUCN (2000), a todas estas especies: *Eucalyptus camaldulensis*, *E. globulus*, *E. gomphocephala*, *E. gunnii*, *E. nitens* y *E. sideroxylon*, así como cualquier otra especie de este género cuyo destino sea la explotación forestal, debido al alto riesgo de invasión por estas especies consecuencia de sus características biológicas, fisiológicas y ecológicas. Se recomienda extremar la precaución con nuevas introducciones y plantaciones, y se recomienda un seguimiento local y llevar a cabo medidas de erradicación antes de que se produzca la invasión siempre que se observe naturalización de cualquier especie de *Eucalyptus* en nuestro territorio.”

Euskal Autonomia Erkidegoan eukaliptoak estalitako azalera 4 aldiz biderkatu da azken hiru hamarkadetan, eta dagoeneko lurraldearen %2,6 estaltzen du. Mendebaldetik eta Bizkaiko kostaldetik Araba eta Gipuzkoara zabaltzen ari da. Azalera horren %60 inguru *Eucalyptus globulus*-ek estaltzen du, %37 *E. nitens*-ek eta %3 beste eukalipto espezie batzuek.

Bestetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak dion moduan, mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea udalerriko eskumen propioak dira.

Lurralde eta hirigintza plangintzako 2/2006 Legeak, bestalde, herriko ingurumena era egokienean mantentzeko neurriak hartzeko eta lurzorua, lurpea edo lur-gaina erabiltzea dakarten jarduketetarako hirigintza-lizentzia eskatzeko udalek dituzten ahalmenak ezartzen ditu; ahalmen horiek maniobra-tarte bat irekitzen dute, beraz, gai hau arautzeari dagokionez.

Gabiriako Hiri Antolaketako Arauak 2003an onartu ziren. Ondoren, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea onartu zen eta Gabiriako Arauak, oraindik, 2/2006 Lege honetara egokitu gabe daude. Beraz, datozen urteetan udal plangintza orokorra berrikusi eta egokitzeko prozesua aurrera eraman beharko da. Plangintza orokor horrek, udalerriko lurzoruen erabilerak arautzen ditu, eta, besteak beste, ingurune naturala.

Guzti hau kontutan harturik, Gabiriako Udaltzari proposamena egin nahi diogu ondorengo ERABAKIA HAR DEZAN:

1. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritu arte eta horretan zehaztu arte lurzoruen erabilera posibleak, debekatzea udalerrri guztian eukalipto-landaketak egitea, ebidentzia zientifikoei men eginez.
2. Eusko Jaurlaritzari eskatzea, ahalik eta lasterren, eratu dezala Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa eta berehala ireki dezala Eucalyptus espezie desberdinak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoan sartzeko administrazio-prozedura.
3. Foru Aldundiei baso-politikak alda ditzatela eskatzea, beren lurraldeetan eukalipto gehiago landatu ez daitezen, eta titulartasun publikoko zein pribatuetako mendietan egun dauden eukalipto-sailen ordezkapen ordenatua planifika dezaten.

Gabirian, 2023ko maiatzaren 15ean.

**GABIRIA HAUTESLE ELKARTEA**